



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko ekainaren 24a

82. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00004. Foru-lege proiektua, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2025eko aurrekontuan guztira 3.657.469,68 euroko kreditu-gehigarriak eta 127.260,00 euroko aparteko kreditua emateko (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/POR-00246. Galdera, gizarte-zerbitzuen zorroko zenbait zerbitzu emateko epeei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (6. or.).
- 11-25/POR-00247. Galdera, harrera-zentroetan dauden bidaiderek gabeko adingabeei ematen zaien arretari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (7. or.).
- 11-25/POR-00248. Galdera, NKJFI-Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak kirol arloko gorroto diskurtsoen eta diskriminazioaren aurka egiten duenari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (7. or.).
- 11-25/POR-00249. Galdera, Ezkabako gotorlekua memoriaren toki izendatzeko urtebeteko epea ezartzeari buruzkoa. Irati Jiménez Aragón andreak egin du (8. or.).
- 11-25/POR-00250. Galdera, Santos Cerdán jauna Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren arteko bileretara gonbidatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- 11-25/POR-00251. Galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00252. Galdera, ustelkeriaren aurkako neurriei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00253. Galdera, Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeko udalekiko lan-mahaiei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00254. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (11. or.).

- 11-25/POR-00255. Galdera, Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak eta auditore batek berrikusi beharreko kontratuak Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboari emateari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00256. Galdera, Antxon Alonso Egurrola enpresariarekin izandako bilerei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00257. Galdera, Nafarroako Gobernuak lehendakariaren dimisioari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00258. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko lanak esleitzeko prozesuaren irregulartasunen gainean mahaiko legelariak jarritako eragozpeni buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00259. Galdera, dimititu eta hauteskundeak aurreratzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00260. Galdera, enpresa ustelazleei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00261. Galdera, auditoretzen epeei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00262. Galdera, Sarrigurengo udalez gaidiko plan sektorialaren izapidetzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00263. Galdera, erantzukizun politikoa onartu eta dimititzeari buruzkoa. José Javier Esparza Aburrea jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00264. Galdera, Nafarroako herrietako udako jaietan segurtasun publikoa bermatzeko planari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00009. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (17. or.).
- 11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (18. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00004. Foru-lege proiektua, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2025eko aurrekontuan guztira 3.657.469,68 euroko kreditu-gehigarriak eta 127.260,00 euroko aparteko kreditua emateko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2025eko ekainaren 18an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2025eko aurrekontuan guztira 3.657.469,68 euroko kreditu-gehigarriak eta 127.260,00 euroko aparteko kreditua emateko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzararekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2025eko aurrekontuan guztira 3.657.469,68 euroko kreditu-gehigarriak eta 127.260,00 euroko aparteko kreditua emateko foru-lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko baita. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2025eko aurrekontuan guztira 3.657.469,68 euroko kreditu-gehigarriak eta 127.260,00 euroko aparteko kreditua emateko

ATARIKOA

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak; Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalekoak; Hezkuntzakoak; eta Kultur, Kirol eta Turismokoak 2025ean zenbait gasturi aurre egiteko beharrari buruzko txostenak bidali dituzte, ez baitago aurrekontu-partida egokirik edo kontsignatuta dagoena aski ez baita hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin diren konpromiso batzuei erantzuteko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoan ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatuta dagoena aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa, lehen kasuan, edo kreditu-gehigarri bat ematekoa, bigarrenean.

Era berean, bigarren paragrafoan ezartzen denez, kreditu-gehigarria eta aparteko kreditua finantzatzeko edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuk balia daitezke, are Parlamentuak zuzenketen edo foru lege horretako xedapenen ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, edo bestela, ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera

handiagoen kargura (diru-sarrera horiek errealak edo aurreikusitakoak direla ere), edo jatorrian dagoen gastua egiteari atxikitako diruzaintzako gerakinaren aplikazioaren kargura.

1. artikulua. Kreditu-gehirri bat ematea Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-ko Departamentuari.

2025eko ekitaldian 2.187.469,68 euroko kreditu-gehirria emanen da, Gizarte Zerbitzu Publikoak kudeatzeko Nafarroako GIZAIN Fundazioari egindako enkarguaren finantzaketa-beharrei erantzuteko.

Kreditu-gehirri hori aurrekontuko partida honi aplikatuko zaio:

PARTIDA	ZENBATEKOA
920008-93300-2279-231700 «Gizarte Zerbitzu Publikoak kudeatzeko Nafarroako GIZAIN Fundazioari egindako enkargua»	2.187.469,68

Kreditu-gehirria 2025eko diru-sarreraren aurrekontuko partida honen kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
114001-13100-5200-000000 «Kontu korronteen interesak eta eperako ezarpenak»	2.187.469,68

2. artikulua. Kreditu-gehirri bat ematea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuari.

2025eko ekitaldian 270.000,00 euroko kreditu-gehirria emanen da finantzaketa-behar hauei

erantzuteko: BAI Fundazioa: robotikaren garapena eta eraikuntzaren eta arkitekturaren industrializazioa.

Kreditu-gehirri hori aurrekontuko partida honi aplikatuko zaio:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G10001-G1100-4301-322300 "BAI Fundazioa: robotikaren garapena eta eraikuntzaren eta arkitekturaren industrializazioa"	270.000,00

Kreditu-gehirria 2025eko diru-sarreraren aurrekontuko partida honen kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
113002-12000-8700-000000 Diruzaintzako gerakin atxikia	270.000,00

3. artikulua. Kreditu-gehirri bat ematea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digtaleko Departamentuari.

2025eko ekitaldian 1.200.000,00 euroko kreditu-gehirria emanen da finantzaketa-behar hauei

erantzuteko: CENER fundazioari funtsak ematea I+G+B arloko proiektu eta inbertsioetarako.

Kreditu-gehirri hori aurrekontuko partida honi aplikatuko zaio:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G20001-G2100-7301-467300 "CENER Fundazioari funtsak ematea I+G+B arloko proiektu eta inbertsioetarako"	1.200.000,00

Kreditu-gehirria 2025eko gastuen aurrekontuko partida honen kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
820005-82600-7701-467304 "Eskualdez gairako lankidetzaren proiektu eta jarduketetarako dirulaguntzak"	1.200.000,00

4. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

2025eko ekitaldian 127.260,00 euroko aparteko kreditua emanen da Nafarroako Gobernuako departamentu batzuen beharrak finantzatzeko.

Aparteko kreditu hori aurrekontuko partida hauei aplikatuko zaie:

PARTIDA	ZENBATEKOA
410001-41800-7609-325114 "Hitzarmena Leitzako Udalaarekin hezkuntza-azpiegituretan inbertsioak egiteko"	37.260,00
A50000-A5000-7819-336103 "Hitzarmena Aitziber Urdiaingo Gaztedia elkartearekin igerilekua berritzea"	90.000,00

Aparteko kreditua aurrekontuko partida haue-tan dagoen kreditu erabilgarriaren kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
410001-41800-6020-325139 "Hitzarmena Leitzako Udalaarekin hezkuntza-azpiegituretan inbertsioak egiteko"	37.260,00
A50000-A5000-7609-3361H8 "(E) Hitzarmena Aitziber Urdiaingo Gaztedia elkartearekin igerilekua berritzea"	90.000,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00246. Galdera, gizarte-zerbitzuen zorroko zenbait zerbitzu emateko epeei buruzkoa*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, gizarte-zerbitzuen zorroko zenbait zerbitzu emateko epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gizarte Zerbitzuen Zorroak zerbitzuak emateko gehieneko epea zehazten du. Horrela, batetik, administrazio publikoa konprometitzen du, eta, bestetik, pertsonen segurtasuna ematen zaie prestazio eta zerbitzu bermatuak eskuratzeko orduan. Hala ere, gero eta ohikoagoa da epe horiek ez betetzea. Ez-betetze berriena errenta bermatuaren eskaerak ebazteko epea luzatzei buruzkoa da, baina desgaitasunaren balorazioaren eta mendekotasunaren balorazioaren kasuak ere ekarri behar ditugu gogora. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu: Zergatik gertatzen dira atzerapen horiek, zer faktorek eragiten dute horretan, nola eta zer epetan ebartziko da eta nola saihestuko da atzerapen horiek berriz gertatzea?

Iruñean, 2025eko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-25/POR-00247. Galdera, harrera-zentroetan dauden bidaiderek gabeko adingabeei ematen zaien arretari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, harrera-zentroetan dauden bidaiderek gabeko adingabeei ematen zaien arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du harrera-zentroetan dauden bidaiderek gabeko adingabeei behar bezalako arreta bermatzeko eta inguru horietan errespetuzko bizikidetzatza orekatua bermatzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/POR-00248. Galdera, NKJFI-Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak kirol arloko gorroto diskurtsoen eta diskriminazioaren aurka egiten duenari buruzkoa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, NKJFI-Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak kirol arloko gorroto diskurtsoen eta diskriminazioaren aurka egiten duenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bizikidetzaren eta inklusioaren arloan autonomia-erkidegoak egiten ari diren lanaren baitan, LaLigaren egoitzan egin zen "Kirolean gorroto-diskurtsoei aurre egiteko proposamena" lan-bileran parte hartu zuen Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak.

Ekaineko hilabete honetan LGTBI harrotasunaren hilabetea ere ospatzen dugu, eta kirolaren arloan oraindik ere diskriminazio- eta gorroto-egoerak bizi dira.

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua zer ari da egiten kirolaren arloko diskriminazio- eta gorroto-diskurtsoei aurre egiteko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-25/POR-00249. Galdera, Ezkabako gotorlekua memoriaren toki izendatzeko urtebeteko epea ezartzeari buruzkoa

IRATI JIMÉNEZ ARAGÓN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irati Jiménez Aragón andreak egindako galdera, Ezkabako gotorlekua memoriaren toki izendatzeko urtebeteko epea ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Irati Jiménez Aragonek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuaren Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Memoria Demokratikoari buruzko urriaren 19ko 20/2022 Legean, EH Bilduk proposatutako zuzenketa baten bidez, hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitu zen, zeinaren bidez ezartzen baitzen urte bateko epean San Kristobal gotorlekua memoriaren leku aitortua izan behar zela. Era berean, xedatzen zen lankidetzahitzarmen baten bidez eta zerikusia duten toki-entitateekin batera, memoria demokratikoa errekuperatu, zaindu eta hedatzearekin bat datozen finantzaketa eta jarduerak ezarri behar zirela.

Lan-ildo horretan, San Kristobal gotorlekuari buruzko Protokolo Orokorra onetsi zuen Nafarroako Gobernuak maiatzaren 21ean, laster Estatua-ekin sinatzeko asmoz, zeinetan xedatzen baita San Kristobal gotorlekua memoriaren leku gisa aitortua izan dela.

Hori horrela,

Eremua memoriaren leku aitortzeaz gainera, zer urrats eta epe aurreikusten dira EH Bilduk sustatutako hamazazpigarren xedapen gehigarriaren edukia betetze aldera, eta, zehazki, hitzarmen horretan Nafarroako Gobernuak adierazitako nahia betetze aldera?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Irati Jiménez Aragón

11-25/POR-00250. Galdera, Santos Cerdán jauna Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren arteko bileretara gonbidatzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Santos Cerdán jauna Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren arteko bileretara gonbidatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak datorren ekainaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nork gonbidatzen zuen Santos Cerdán jauna Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren arteko bileretara?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00251. Galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpeguik Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntzako kontseilariak berriki eginiko agerrialdi batean, jakinarazi zuen txosten bat zegoela Iturramako ikastetxean, Doña Mayor ikastetxean eta Arroizko La Balsa ikastetxean 2 urtekoen gelak ezarri izanari buruzko asebetetze handia jasotzen zuena.

Ildo horretatik, hau galdetzen diogu Hezkuntzako kontseilariari: zer balorazio egiten du zure Departamentuak aipatutako txosten horri buruz?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/POR-00252. Galdera, ustelkeriaren aurkako neurriei buruzkoa*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, ustelkeriaren aurkako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, zer neurri sustatu beharko lituzkete erakunde publikoek ustelkeriari aurre egiteko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/POR-00253. Galdera, Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeko udalekiko lan-mahaiei buruzkoa*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeko udalekiko lan-mahaiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak heldu den ekainaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Behin etxebizitza ordainerrazaren legea eta Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalderako neurrien Plana onetsita, lan-mahaiak ezarri behar dira zerikusia duten udalekin.

Zer egutegi eta lehentasun dituzu buruan udalekin lan-mahai horiek eratzeari dagokionez?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-25/POR-00254. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da gaur egun N-121-A errepidea 35+300 kilometro-puntutik 40+500 kilometro-puntura bitarte 2+1 bide bihurtzeko proiektua?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-25/POR-00255. Galdera, Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak eta auditore batek berrikusi beharreko kontratuak Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboari emateari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak eta auditore batek berrikusi beharreko kontratuak Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboari emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez dituzu Unitate Zentral Operatibora eramán Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoak eta auditore batek aztertzea nahi duzun kontratuak?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-25/POR-00256. Galdera, Antxon Alonso Egurrola enpresariarekin izandako bilerei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Antxon Alonso Egurrola enpresariarekin izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik bildu zinen bakarka Antxon Alonso Egurrola enpresariarekin lau aldiz 14 hilabetetan?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/POR-00257. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren dimisioari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren dimisioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Galdera arrunta 2025eko ekainaren 26ko Osoko Bilkurarako.

Nafarroako Gobernuko lehendakari andrea, Nafarroako Alderdi Sozialistako kargudunen ustezko ustelkeriari buruz agertu diren informazioak kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuko lehendakari eta Nafarroako Gobernuko idazkari nagusi zaren heinean, ba al duzu asmorik zure karguetan dimisioa emateko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00258. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko lanak esleitzeko prozesuaren irregulartasunen gainean mahaiko legelariak jarritako eragozpenei buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Belateko tunelak bikoizteko lanak esleitzeko prozesuaren irregulartasunen gainean mahaiko legelariak jarritako eragozpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuako lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein izan zen zure erreakzioa jakin zenuenean Belateko tunelen bikoizketa-obren esleipen-prozesuan kontrako arrazoi sendoak argudiatu zituztela mahaiko legelari guztiek, balizko irregulartasunak zirela-eta?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-25/POR-00259. Galdera, dimititu eta hauteskundeak aurreratzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, dimititu eta hauteskundeak aurreratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2025eko ekainaren 26ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Lehendakariak uste al du Servinabar kasuari buruz ezagutu diren azken albisteak eta PSNren goi-kargudunen dimisioak ez direla aski arrazoi dimisioa emateko eta hauteskundeak aurreratzeke?

Iruñean, 2025eko ekainaren 22an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00260. Galdera, enpresa ustelarazleei buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, enpresa ustelarazleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken egunotan argitaratu dira eta ezagutu ditugu Nafarroa, berriz ere, ustelkeriaren erdigunean jarri duten zantzu larriak.

UCOren txosten batek kontratu publikoei lotutako komisio ilegalean ustezko ordainketak aipatzen ditu. Hori dela-eta:

Gobernuak nola baloratzen du ustezko ustelkeria-azpijokoetan nahastutako enpresak egotea eta zer zehapen-neurri osagarri ezarriko ditu, dandenez gain, ustelkeria dela-eta kondenatutako enpresek ezin izan dezaten administrazio publiko-arekin kontraturik egin?

Iruñean, 2025eko ekainaren 22an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-25/POR-00261. Galdera, auditoretzen epeei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, auditoretzen epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascuésék apirilaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Egindako azken iragarkien ondoren, zer epetan uste duzu izanen dituela Nafarroako Gobernuak Nafarroako Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoari, bai eta UCOren txostenean agertzen diren enpresei esleitutako proiektuei buruzko kanpoko auditoretzei ere eskatutako auditoretzen emaitzak?

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00262. Galdera, Sarrigurengo udalez gaindiko plan sektorialaren izapidetzeari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Sarrigurengo udalez gaindiko plan sektorialaren izapidetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledunaren ondoko Kevin Lucero Domingues jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariari zuzendua, 2026ko ekainaren 26ko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

Nafarroako Gobernuak Legegintzaldiko Akordioan jasotako neurriak eta ekintzak bultzatzen ditu. Akordioan, etxebizitzaren arloan, lehentasun politiko gisa ezarri zen etxebizitza bizigarri eta eskuragarri-parke bat sustatzea. Zehazki, Iruñerrian, Sarrigurengo udalez gaindiko plan sektorialaren proiektuak 5.000 etxebizitza inguru jarri ahal izanen ditu herritarren eskura, mugikortasuna hobetzeko azpiegitura berriekin.

Gauzak horrela, zertan da Sarrigurengo udalez gaindiko plan sektorialaren izapidetzea?

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/POR-00263. Galdera, erantzukizun politikoa onartu eta dimititzeari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, erantzukizun politikoa onartu eta dimititzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez duzu zure gain hartu dagokizun erantzukizun politikoa eta aurkeztu dimisioa?

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-25/POR-00264. Galdera, Nafarroako herrietako udako jaietan segurtasun publikoa bermatzeko planari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako herrietako udako jaietan segurtasun publikoa bermatzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Gaurkotasun handiko galdera, 2025eko ekainaren 26ko Osoko Bilkurarako

Nafarroako Gobernuako lehendakaria:

Zer plan du uda honetarako zuk zuzentzen duzun Nafarroako Gobernuak Nafarroako herrietako udako jaietan segurtasun publikoa bermatzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00009. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA

2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzeko arauekin bat, zeinak 2025eko ekainaren 16ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (78. NPAO, 2025-06-17koa), honako hau ERABAKITZEN DA:

Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hauta-

tzeko hautagai gisa honako pertsona hauek aldarrikatzea:

– Ibai Crespo Luna jauna, titularra, eta Javier Lecumberri Urabayen, ordezkoa, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzea

HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA

2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako kideak hautatzeko arauekin bat, zeinak 2025eko martxoaren 28ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (58. NPAO, 2025-04-30ekoa), honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Honako hauek aldarrikatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kide izateko hautagai:

– Idoia Sara Pérez andrea, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

– Patricia Ruiz de Irizar andrea, Contigo-Zurekin talde parlamentarioak proposatuta.

– Antonio Pérez Prados jauna, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak proposatuta.

– Eva Azanza Bengoetxea andrea, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– Jesús María Repáraz Leiza jauna, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

